

txi

kitto!

2026ko martxoa



EUSKARAREN
ALDE DENOK
KORRIKA
EGITEKO **PREST**

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN..... 9

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK..... 10

DENBORAPASAK..... 11

LEHIAKETA..... 13

IPUINA 14

ZU BAI MARGOLARI 16

 **eta kितto!**
euskara elkarteak

Argitaratzailea

“...eta kितto!” Euskara Elkarteak
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Oihane Zabala

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

- Ama gaur ez dut eskolara joan nahi.
- Zergatik ba?
- Hasteko, logura naizelako; gero, aspertuta nagoelako eta gainera ilea nola moztu didaten gustatzen ez zaidalako.
- Ba joan beharra daukazu, eginkizuna delako. Bestalde, 35 urte dituzulako eta motel! Eskolako zuzendaria zara!

zer esaten dio
arroka batek
beste arroka
bati?
zein gogorra den
bizitza.

**ZER ESATEN DIO
LARANJA BATEK
BESTE LARANJA BATI?
LARANJAJAJAJAJA.**

Zer esaten dio semaforo
batek beste semaforo
bati?
Ez begiratu aldatzen nago-ela.

**Non gordetzen du
marrazo batek bere
dirua?
Arrain banku batean.**

Asto bat menditik
Italiara joan da
eta azeri bat Italiatik
mendira joan da.
Mendian elkar topatu
dira eta azeriak esaten
dio astoari "i am sorry"
eta astoak
erantzuten dio:
"i am burri".

KORRIKAREN ZAIN



TESTUA: **EKHI BELAR** / BIDEOA: **OIHANE ZABALA**

Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikasleek egin dituzte beroketa-lanak Korrikarako. Lehenik, Korrika Txikia egingo dute eta gero, larunbatean, Korrika nagusia.

Ikastetxean beti egin dute lan euskararen alde, erabileran eta sustapenean, eta nola ez, Korrika hain gertu edukita, lanketa berezia egin dute. Horrela, Korrikaren historia, bere esanahia, aurten izango duen ibilbidea eta ikastetxean egin diguten lanketa nolakoa izan den kontatu digute.

Demaseko ilusioa ikusten zaie Korrikari buruz berba egiten dutenean eta hori kutsatu egiten da. Gu, behintzat, kutsatu gara. Hartu zuek ere Arrateko Andra Mari ikastetxeko lekukoa!

BIDEOA
YOUTUBEN





Alazne Avellaned Lamas
11 urte

Korrika garrantzitsua da jendea elkartzen duelako, euskara zaintzen duelako eta denon artean gauza handiak egin daitezkeela erakusten duelako.

Hamza Rami Ennani
12 urte

Korrika euskararen aldeko lasterketa handia da. Ez da irabazteko lasterketa, parte hartzeko baizik!



Ines Bousbaa Noam
10 urte

Adin guztietako jendeak hartzen du parte. Euskara maite dugun guztiok! Euskara egunero erabiltzen dugu, Korrika denean eta ez denean. Euskara gure nortasunaren indargunea delako.



Zabie Amir Asghar
12 urte

Korrikaren helburua euskarari babesa ematea eta ondo pasatzea da. Gainera, Korrikaren lekukoak mezu berezi bat darama barruan.



ARRATEKO ANDRA MARI

Azoka solidarioa egin berri dugu ikastetxean. Bertan salgai jarri genituen azkeneko hilabeteetan ikasleek etxetik ekarritako material desberdinak (arropa, jostailuak, ume-kotxeak...), prezio onean eskuragarri, bigarren bitzta emateko. 6. mailakoak izan ziren, Agenda 30ekoekin batera, antolatzaileak eta egunean bertan saltzaileak.



AMAÑA

Otsailean zehar binakako eskupilota txapelketa antolatu dugu gure eskolan. Lehen hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako neska-mutiek hartu dugu parte. Fasez fase joan dira bikoteak sailkatzen, finalera iritsi arte. Finalean eskola guztia egon ginen ikusle moduan eta primeran pasatu genuen!



SAN ANDRES



San Andes eskolan bat egin dugu Rexcatering proiektuarekin, jangelan soberan geratzen den janaria Erreal plazako vending makinetara eramateko egitasmoa.

“Orain dela hilabete hasi ginen eta emaitzak ezinhobeak izaten ari dira: janari xahuketaren kontrako kontzientzia hartu dugu eta ikasleen parte-hartzea, konpromisoa eta motibazioa oso onak izaten ari dira”.

ALDATZE

Martxoaren 8an, eta urteko egun guztietan, Aldatzetik ere berdintasuna aldarrikatzen dugu. Hezkuntzatik gizarte justuago eta berdinzaleago bat eraikitzeko emakumeen eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzen ditugu.



LA SALLE



Pasatu ziren aratosteak eta Garizuman sartuta gaude. Gure animalien safaria Eibartik zehar kalejiran ibili zen, giroa alaituz. Primeran pasa genuen benetan!!! Horretaz gain, eskolako txikienek espazioaren inguruko erakusketa zoragarri bat prestatu digute patio txikian, egindako lan zoragarriaz gozatzeko.

ITURBURU

Otsailean, J. A. Mogealeko 5. mailako ikasleak zuhaitzak landatzen ibili ginen. Ekimen ederra eta oso baliogarria izan zen bai gure etorkizunerako eta baita ondorengoentzat ere.



URKIZU



Otsailean Ekain Iburguren pailazo eta malabarista izan genuen gure eskolan, Ekain Txou emanaldia eskaintzen. Ikastetxeko irakasle eta ikasleak aretoan elkartu ginen eta ordu bete egin genuen Ekainekin barrez eta baita harrিতuta ere: txistek, kankak, malabarak...



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Zure garaia iristen ari da! Energiaz gainezka egongo zara eta plan berriak martxan jartzeko gogoia izango duzu.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Lasai baina gustura ibiliko zara. Udaberriko eguzkiak animoa igoko dizu eta kanpora irteteko gogoia piztuko.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Lagunarteko elkarrizketak izango dira protagonista. Barre eta kontu dibertigarriak ez dira faltako.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Zure bihotzak gauza politak eskatuko dizkizu: lagun bati laguntzea edo momentu goxo bat partekatzea.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*

Zure distira handituko da. Jolas edo ekintza batean protagonismoa hartuko duzu eta oso gustura sentituko zara.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Gauzak ondo egiteak poza emango dizu. Antolatuta ibiliz gero, denbora gehiago izango duzu jolasteko.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Oreka eta giro ona bilatuko dituzu. Lagunen artean zubi lana egingo duzu eta denak gustura egongo dira.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Zure jakin-mina piztuta egongo da. Zerbait berria ikasteko gogoia izango duzu eta adi-adi ibiliko zara.



SAGITARIO

*azaroak 21
abenduak 20*


Mugitzeko eta esploratzeko gogoia izango duzu. Edozein plan txiki abentura bihurtuko duzu.



CAPRICORNIUS

*abenduak 21
urtarrilak 20*

Zure ahaleginak fruituak ematen hasiko dira. Horrek konfiantza emango dizu aurrera jarraitzeko.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea berriak eta originalak etorriko zaizkizu. Lagunek harrিতa begiratuko dizute zure asmakizunekin.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Sormen handiko egunak izango dituzu. Marrazkiak, ipuinak edo jolasak... zure irudimenak ez du mugarik.



TESTUA: **IRATI ALVAREZ**

Hilabete honetan Eneko, La Salleko 3. mailako ikaslea, eta bere aitaitza Fran ezagutuko ditugu. Eneko 8 urteko mutikoa da, eta Fran, berriz, duela urtebete jubilatutako 66 urteko aitaitza. Denbora elkarrekin pasatzea asko gustatzen zaie, eta hainbat jarduera partekatzen dituzte, hala nola perretxiko bila joatea edo ortuan lan egitea.

Zein da zuen asteko egunik gogokoena, zergatik?

BIAK: Ostirala!

Zer egiten duzue elkarrekin?

FRAN: Perretxiko bila joaten gara. Jatekoak diren ondoak biltzen ditugu.

ENEKO: Bai!

FRAN: Ortu bat daukat eta Eneko batzuetan laguntzera etortzen da.

Zein da zuen janari gustukoena?

ENEKO: Pizza!

FRAN: Nirea pizza ez. Beste guztia bai. Berdin zait, denetarik jaten dut.

Eta entsalada gustatzen zaizue?

FRAN: Bai, bai! Ortu hartutakoak, gainera.

ENEKO: Bai, eta ilarrak ere bai. Nik zuritzen ditut ortuko ilarrak. Asko gustatzen zaizkit.

Nola laguntzen diozu ortuan aitaitxari, Eneko?

ENEKO: Zerbait ekartzeko eskatzen didanean eramaten diot.

FRAN: Belar txarrak ere kentzen ditu.

Zer ikusten duzue telebistan?

ENEKO: Netflix! Pinky Malinky pila bat gustatzen zait.

FRAN: Etxean gutxi egoten naiz. Orduan, Teleberri, zerbait ikustekotan.

Zer egitea gustatzen zaizue zuen denbora librean?

ENEKO: Nire arrebarekin jolastea. Switchera eta iman batzuekin jolasten dugu.

Aitaitza, harreman ona dute anai-arrebek?

FRAN: Bai, bai.

Batzuetan, badakizu, haserretu egiten dira... baina normalean ez. Nahiko ondo moldatzen dira.

Zer nahiago duzue, hotza ala beroa?


ENEKO: Beroa.

FRAN: Nik hotza.

6 urte

Amaiur

Ipuin hau iraganera eginen dugun bidaia ttipi bat da. Herri batez baino gehiago, herritarrez mintzo dena. Zenbait lagunen bitartez, aspaldiko kontuak jaso ahalko ditugu; gerra gertutik ezagutu zutenena, egun batetik bestera bizitza aldatu zitzaienena... funtsean gaur egungo kontuak izan daitezkeenak.



8 urte

Lapurtutako bizkotxoaren kasua

Ba al dakizu zer egiten duen zure amonak zurekin ez dagoenean? Bai? Seguru? BENETAN?!

Hala uste nuen nik, harik eta egun batean nire amona AGENTE INTERGALAKTIKO bat zela jakin nuen arte. Hau bai sorpresa! Hori gutxi balitz, unibertso osoa ARRISKUAN zegoela ere jakin nuen. Eta zergatik? URTEBETETZE-PASTEL bat desagertu zelako!



10 urte

Maia, suaren txinparta

Euria ez da gelditzen eta Harri Zaharra desagertu da. Maia eta Manex basoan sartuko dira sekretuak argitu nahian, Zezengorriri aurre egiteko eta sorginen gaua iritsi baino lehen dena bere tokira itzul dadin. Abentura zoragarria bizi nahi baduzue, hauxe da zuen aukera!



BITXIKERIAK

Bere bizitzan, erle langile batek 40 km egin ditzake guztira.

Azazkalak batez beste 3,47 milimetro hazten dira hilean.

Katuek beren bizitzaren %70 baino gehiago egiten dute lo. Egunean 12-15 ordu igaro dezakete lotan.

HIZKI ZOPA

H	E	M	T	E	R	U	N	T	X	i	A	L	A	L
P	U	O	R	T	S	Z	H	x	i	K	B	A	D	E
A	A	B	C	D	E	F	G	A	H	i	J	K	L	M
N	N	N	O	P	Q	R	S	K	T	U	V	W	X	U
B	B	S	D	K	Z	T	U	U	S	K	L	N	O	R
C	K	L	M	A	N	Z	Z	R	A	L	D	E	R	E
K	A	K	A	T	i	Z	O	R	E	H	U	T	Z	A
K	U	K	U	U	A	S	H	A	M	S	T	E	R	Z
D	E	L	i	A	P	i	N	P	i	S	T	R	U	O
B	A	L	E	T	A	K	N	O	I	R	F	G	J	K
Z	i	L	B	U	R	S	U	Z	K	B	I	E	O	U
B	A	L	i	O	D	U	P	E	D	R	O	S	I	T
B		P	i	N	P	i	L	N	P	A	U	X	A	U

- 1- Panda 2- Umtxia 3-Balea 4-Katua
 5-Txakurra 6-Lemurea 7-Hamster 8-Pimpilinpauza

LABIRINTOA



OSATU ESALDIA

Handwritten alphabet with numbers above each letter:

A B C D E F G H I J K L M N O P Q R
 S T U V W X Y Z

Numbers above letters: A(10), B(21), C(8), D(19), E(12), F(13), G(19), H(1), I(2), J(23), K(14), L(7), M(4), N(3), O(20), P(11), Q(9), R(5), S(22), T(22), U(15), V(18), W(3), X(16), Y(21), Z(27)

Handwritten numbers for crossword puzzle:

7 2 21 6 22 6 10 12 17 14 6 10 3 12 15 10
 2 21 2 7 2 4 6 3 14 6 10 3

A crossword puzzle grid is shown with a large purple flower in the center. The grid is partially filled with numbers corresponding to the clues below.

GURUTZEGRAMA

A crossword puzzle grid is shown. The word "KAKAMINA" is written vertically in the grid.

Ezkerretik eskuineko

1. Osu motela eta txikiak da.
2. Etxea gainean dauka eta osu motela da.
3. Mian egiten du eta arria da.
4. Lepo luzea dauka eta behin jaten du.

Goitik behera

5. Osolanda da eta txikiak dauka.
6. Ile oso luzea eta kobak ditu.
7. Guai egiten du eta leso dauka.
8. Arrietan bizi da eta atrekoa biltzen da.

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
KORRIKA-REN
irudiak.

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
APIRILAK
28a baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera





























Aurreko aleko irabazlea



Aupa **SARA** txapeldun!
Marrazki edo honekin
irabazi duzu hilabeteko
saria, liburua eta ...eta
kitto!-ren bisera.
ZORIONAK!!!

Ale honetan irakurriko duzue honako ipuin hau, itxura batean piktogrametan eta testu idatzietan bakarrik dagoena, komunikazio behar konplexuak dituen ikasle baten barruko mundu bizi baten isla da. IBANE PADILLA da egilea. Ez du ahozko adierazpenik, ezta irakurri eta idazteko gaitasunik ere, baina bere burmuinak istorioak sortzen ditu, zeinuetan, begirada batean eta pentsamenduetan gordeta. Ideia horiek zeinu hizkuntzaren bidez adierazi eta irakasleon laguntzarekin testu idatzi bilakatu dira; ondoren, Ibanek berak piktogramen bidez berreraiki du ipuina, esaldiz esaldi, baliabide digital baten bidez. Ibaneren sormenaren, imajinazioaren eta istorioa kontatzeko modu propioaren lekuko da, gure aurrean zabaltzen den mundu txiki eta magikoa.



					
BAZEN	BEHIN,	ANE	DEITZEN	ZEN	12 URTEKO NESKATO
					
POLIT	BAT,	ANEK	EZ	ZEKIEN	IRAKURTZEN ETA,
					
BERE	ETXEAN	EZ	ZEGOEN	LIBURURIK.	
					
MENDIAN	BESTE	ALDEAN,	LIBURUTEGI	BAT	ZUEN
					
DRAGOI	BAT	BIZI	ZEN.		



NIK



ETXEAN



LIBURU



PILA



DITUT,

NAHI

BADUZU



ETXERA



ETORRI



ETA



IRAKURTZEN



IRAKATSIKO

DIZUT.



DRAGOIAREN



ETXEA



BESTE



ALDEAN



ZEGOEN



ETA!



PERRETXIKO



FORMA



ZUEN.



PERRETXIKOAREN



BARRUAN



LIBURU



PILA

1

BAT

ZEUDEN.




KOLORE



ETA



FORMA



DESBERDINETAKO



LIBURU



ASKO.



HALA



BAZAN



EDO



EZ



BAZAN



SAR



DADILA

KALABAZAN



ETA



IRTEN



DADILA



URKIZUKO






PLAZAN.

Zu bai margolari

Zu bai

Sortu zure munstroak eta koloreztatu



Zu bai margolari

margolari

Zu bai m

argolari

Zu

Zu bai

bai margolari